

Jan Braun-en hilberria (1926-2015)

KINTANA, Xabier
Euskaltzaindiko idazkaria

Jaun-andreok: egun on eta ongi etorri guztioi.

Gaur, zuen aurrean, etxeko eta atzerriko euskalari batzuen gomutaz, haien oroitzapena gogora ekarri nahi du Euskaltzaindiak, eta, horretarako, beren bizitzak goraiatzeko ohorea eskaini digute. Niri dagokidanez, Jan Braun poloniar hizkuntzalari eta adiskidearen gomuta-hitzaldia aurkeztuko dut.

Jan Braun jauna Poloniako Lodz hirian jaio zen, 1926ko maiatzaren 15ean. Lehen ikasketak bere herrian bertan egin zituen, eta 1947tik 1951ra bitartean Filologia Klasikoa ikasten aritu zen. Horiek amaitzean, beka bat jaso zuen Georgiako Sobietar Errepublika Sozialistan kaukasiar hizkuntzalaritza espezialitatea egiteko. Horretarako, lau urtez, georgiar Filologia ikasten aritu zen Tbilisiko Estatu-Unibertsitatean. Hantxe georgieraz mintzaten ere ikasi eta bertantxe aurkeztu zuen bere lehen tesia.

1976an Tbilisiko Unibertsitatean euskal ikastaro bat eman zuen eta ondorioz *Euskal hizkuntzarako sarrera* liburua argitaratu zuen, georgieraz. Ikastaldi horren eraginez, Georgiako Estatu-Unibertsitateko talde bat animatu zen euskara ikasten. Eta lehenbiziko talde horretako ikasleen artean Natela Sturua eta Salome Galbunia aurkitzen ziren, gaur euskaltzain urgazle ditugunak.

Era berean, Varsoviako Iberistikako Katedran oinarritzko euskal ikastaroak eman zituen, urte askotan. Bere bigarren tesia 1991n aurkeztu zuen,

Euskera. 2015, 60, 1. 367-374. Bilbo
ISSN 0210-1564

Euscaro-Caukasica izenburupean. Lau urte geroago, 1995ean Varsoviako Unibertsitateko Ekialdeko Ikasketen Institutuan aritu zen lanean, georgiera zahar eta modernoaren irakasle. Bestalde, hainbat artikulu argitaratu zuen, euskara-georgiera hizkuntzen arteko ustezko antzei buruz.

Anitz hizkuntzaren jabe zen Jan Braun. Etxeko polonieraz gainera, bazezkiekien errusiera eta bere inguruko eslaviar hizkuntzak ere (ukrainera, txekiera, eslovakiera...) latina, greziera, alemana, ingelesa, espainiera, frantsesa, georgiera, euskara, sumeriera eta tibetera, eta horrek hizkuntzetarako usaimena ere zolitzen zion.

Baina zerk bultzatzen zuen Jan Braun hain hizkuntza ezberdinak ikastera?

Euskal Herritik begiraturik Mesopotamia guregandik oso urrun dagoen arren, ez da gauza bera gertatzen Kaukasoko talaiaren ikuspegitik, eta, beraz, normala da bertako ikertzaileek beren hegoaldean ia-ia auzo dauzkaten Eufrates eta Tigris ibaien arteko zelai ureztatu eta aspaldian zibilizatueta begiak ezartzea, antzinako aztarnen bila. Eta horixe da Jan Braunek pentsatu eta egin zuena, bertako hizkuntza ezagun zaharrena ikasi eta aztertzea, sumeriera, horren bitartez Kaukasiako eta Euskal Herriko bizilagunen hizkuntzekin kideatasunik ba ote zuen aztertzeko.

Gogora dezagun ez zela Jan kaukasiar mintzaira ez-indoeuoparrez arduratzen zen lehen hizkuntzalaria, ez eta Kaukaso eta Pirinioetako hizkuntza zaharrak nolabaiteko jatorri-loturaz elkarturik egon zitezkeela susmatzen zuen ikertzaile bakarra ere. Bera baino lehenago beste filologo batzuk ibili ziren arlo hori jorratzen, adibidez, Niko Marr, C.C. Uhlenbeck, A Trombetti, G. Dumézil, Karl Bouda, eta Rene Lafon, A. Txikobava, T. Gamqrelidze edo G. Klimov, adibidez, baina Kaukasiako hizkuntza ezberdinen multzoek panorama nahasi samarra erakusten zuten oraindik, elkarren arteko ustezko lotura genetikoak argi ulertzeko.

Mesopotamiako hizkuntza zahar idatzi batzuk, Akadiera eta Elamera, adibidez, semitarrak ziren, eta beraz, feniziera, hebreera, aramera eta arabiera historiko eta ongi ezagunen senide. Baina baziren beste batzuk ere, sumeriera adibidez, erro berekoak ez zirenak. Areago oraindik, sumeriera hizkuntza eranskaria da eta badu ergatiboa ere, euskararen eta kaukasiar hizkuntza batzuen antzera.

Gainera, hizkuntzetan era askotako hitzak aurkitzen dira. Batzuk eguneroko zereginetan erabiltzen ditugu geure ohiko giza harremanetan, saltzean edo erostean, eta jendeen bizimoduan garrantzi ekonomiko nabarmena izaten dute. Baina badira beste berba batzuk, gauza apalagoak izendatzen dituztenak, itxuraz hainbeste garrantzirik gabeak.

Halere, merkataritza-balio handiegia ez duten gauza horiek maiz mintzairetan oso erroturik egoten dira eta askotan hizkuntza bera aldatzean lexiko apal horrek luzaro berdin irauten du, adibidez haurren hizkeran eta jolasetan, Euskal Herriko erdaretan oraindik kontserbatzen diren euskal jatorrizko hitzak lekuko: *zapaburu*, *sagutxu*, *batan*, *ai ene*, *birichindón* ‘*begitxindor*’, *goitibera*, *balda*, *txabola*, *sugandila/sogalinda*, *no dejar ni los hondakines* eta, oro har, Emiliano de Arriagak bere *Lexicón del Bilbaino neto*-n bildu zituen beste asko ere, edota, esaterako, Lizarra aldeko erdaran ahoz gorde diren euskarakadak (la *mendema* ‘mahats-bilketa’, *gardatxo* ‘*Timon lepida*, hegoaldeko musker nagusia’, *elzeko* ‘beheko suaren gainean ipintzen diren burdinak, gainean eltzeak jartzeko’ lehenagoko euskararen lekukoak, adibidez. Eta horregatik Jan Braunek garrantzi handia ematen zien horrelako hitzei, iraganaren fosilak izan zitezkeelako.

Hainbat artikulu idatzi zuen, euskara-georgiera hizkuntzen arteko ustezko loturei buruz, aldizkari ugaritan argitara emanak.

Bere azken urteetan Varsoviako Unibertsitateko irakasle emeritua izan zen. Kaukasoko mintzairek agian Mesopotamia zaharreko behialako hizkuntzekin nolabaiteko lotura izan zezaketela susmatuz, haiek ikasten ere jardun zuen eta hari horretatik segituz, azken urteetan Asiaren hego-ekialdeko mintzairak ere ikertzen aritu zen, tibetera eta birmaniera bereziki, elkarrekin izan zitzaketen lotura-ustekoak ikertuz.

Jan Braun iazko ekainaren 29an hil zen. Halere, abendura arte ez zen gure heldu haren heriotzaren berri. Adinez jada 89 urte zituen eta gure hizkuntzaren ikerkuntzan egindako lanengatik ohorezko euskaltzain izendatua izan zen, 2000. urteko urriaren 27an. Ez genuen, beraz hurbileko auzokidea eta horrek are eskergarriago egiten du berak guregana eta gure hizkuntzarengana hainbat urtetan erakutsi zuen interesa.

Harreman pertsonalez

Ez nuke esango zehazki zein urtetan ezagutu nuen Jan Braun jauna, baina pentsatzen dut joan den mendearen hirurogeita hamarren hamarkadan izan zela. Garai hartan Euskaltzaindiak bere egoitza oraindik Erribera kalean zeukan. Ezustekoa izan zen niretzat halako batean poloniar euskalari bat gure Akademian agertzea, euskaraz interesaturik. Elkarrekin mintzatzen hasi eta, gainera, horixe ere kasualitatea, Kaukasoko hizkuntzetan ere ondo aditua zela jakin genuen. Ni ere garai hartan hasi berria nintzen Kaukasoko hizkuntzak ikasten. Georgiera bereziki. Kidetasun horiengatik, eta euskaldunon tradiziozko abegikortasuna nabarmentzeagatik, gurekin bazkaltzera gonbidatu genuen, Rikardo Badiolak eta biok, eta Euskaltzaindiaren Erribera kaleko egoitza zaharretik hurbil zegoen Txoko Eder jatetxera joan ginen elkarrekin.

Bera hemengo jakietara ohiturik egon ez eta bion esku utzi zuen hango menua aukeratzea. Jatetxe hori ongi famatua zen bere arrain bikainengatik, baina aitortu behar dizuet guk on-ustean aukeratu genion jana ez zitzaiola Jani gehiegi gustatu, bistaz bederen. Zer eta txipiroiak beren tintan eskatu genituen. Hura izan zen Braun jaunak gure sukaldaritzako plater goren hori ikusten zuen lehenbiziko aldia eta, lutu-itxura hura ez zitzaion, nonbait, jangarriegi iruditu. Beraz, bere burua desenkusatus, bertan behera utzi zigun jakia, ukitzeke. Halere, besteok berak baztertua gogo handiz sabeleratzen genuela ikusita, azkenean, pixkatxo bat zerbitzatzeko erregutu zigun, dastatu behintzat egiteko, eta orduan bai, jaki hura ezin gozoagoa zela aitortu behar izan zuen.

Urte batzuk geroago, 1980an antolaturiko Euskalarien jardunaldietan atzerritar gonbidatuen artean bera ere egon zen, euskara eta kartveliar hitz batzuen arteko antz eta kidetasunak erakutsiz. Izaeraz pertsona isila eta lasaia zen Jan, gutxi hitz egitekoa, baina beti galdera zorrotz eta interesgarriak egiten zekiena.

Gorago aipatu dudanez, gure hirietako kaleak eta plaza asko Espainia-Frantzietako idazle, pentsalari eta politikarien deiturekin bataiatu agertzen zaizkigu, pertsona horietako gehienak Euskal Herriarekin eta

bere jendeekin inolako kezka ez interesik sekulan agertu gabeak izan arren, etsai nabarmenak izan ez direnean. Beste batzuetan, are «merezi-mendu» xelebreagoak dituztenak ageri dira UNESCOk bereziki kondentzen dituen animalien eskubideen aurkako ekintza basatiak (espainiar toreadoak, adibidez) bultza-goresten dituzten pertsonak, adibidez. Eta bitartean bertoko historia, medikuntza, kultura, literatura, etnografia, zientziak eta humanistika lantzen eta aztertzen ibilitako beste askotaz erabat ahanzten gara.

Euskaldun askok inbidia izaten diegu geure auzo espainol eta frantsesei, beren hizkuntza handi, ofizial, batu, derrigorrezko eta zabalduer esker, beren literaturarekin batera, ikerlanen bibliografietan, espainiar eta frantses jatorrizko autoreez gainera, beste nazio askotako atzerritar irakasle eta ikertzaile ugariak erakartzen dituztelako. Izan ere, erdal gramatika eta literatur lan gehienetan atzerriko ikertzaile horien izenak ere ageri dira, hizkuntzan eta herri horietako literatur balioetan interesaturik.

Gurera etorrita, atzerriko euskalariak ez ditugu horrenbeste, baina izan, badira batzuk, eta horrexegatik are gehiago estimatu beharko genituzke, beren jarrerekin euskaldunok egin beharko genukeena baina askotan egiten ez duguna irakasten digutelako, lotsagorritzeko bada ere. Eta, zinez, Jan Braun horietakoa zen.

Jan Braunek, ahal zuenean Euskal Herrira etorri eta ibilaldiak egiten zituen, bere ustez euskalki ezberdinetako hitz eta esaldi jatorrak aurki zitzakeen lekuetan. Bizkaian, adibidez, Orozkon egon zen, hain zuzen ere, nerau ere gaztetan euskara ikasten ibili nintzen herrian, eta Gorbeia aldeko auzotegi batean, Urigoitin, lagunak zituen, Añibarrotarren familian, bertako berbetaren arkaismo eta berezitasunen bila joanda. Esan beharra dago jendeak begikotasun handiaz hartzen zuela Jan, eta ahal zuten neurrian berak nahi zituen argibideak ematen zizkiotela.

Jada mende honen hasieran, urte batean Janek Gabon-jaiak Euskal Herrian pasatu zituen, eta garai horretan bakarrik egon ez zedin, gure aitak etxera gonbidatu zuen gurekin egotera. Gure jateko ohiturak eta Polonia-koak konparatzen zituen umore onez. Berarekin, halaber, Bilbotik Orozko-ra joan ginen, bertako lagunei bisita egitera.

Arriskugarria izaten da hizkuntza urrun eta oraindik gutxi ezagunen arteko konparaketetan jardutea, eta areago bide hori lehendik ondo jorratua ez denean, baina, bestaldetik, bide zapaldu eta ohondikatu ga-beetatik ibiltzean ateratzen dira maiz ezustekoak eta ondorio harrigarrienak, eta Jan Braunek arrisku hori hartu zuen bere gain, euskalaritzarako urrats mesedegarriak izango zirelakoan, gure artean inoiz aztertu gabeko esparruak ikertu nahian. Ez dira hizkuntza horiek gure artean ezagunenetarikoak eta, beraz, datu horiek oraindik tentuz aztertu beharra dago, denborak eta beste ikertzaile batzuek eskainiko dizkiguten datu egiaztagarri edo arbuigarrien zain. Baina edonola ere, lehen urratsak hor dira.

Bere Herrian Jan Braunek hasitako euskal eskolek aurrera segitu dute, eta Poloniatik zenbait ikasle etorri dira azken urteotan guregana, euskal arloa sakondu nahirik. Horretariko batek, gainera, Dorota Krajevskan andreak, Etxepareren poesi lanak polonierara itzuli ditu eta iaz, Done Frantzisko Xabierkoaren egunean Gasteizko Euskal Parlamentuan aurkeztu ziren. Era berean, Jan Braunen ikasle izandako Salome Gabuniak eta Natela Sturua georgiarrek esku hartu zuten liburu horretan errusierazko eta georgierako itzulpenak egiteko.

Jan Braunen Hizkuntzalaritza-idazlanak

Honen ondoren Jan Braunen idazlan batzuk zerrendatzen ditugu, haren intereseko arlo nagusiak erakusten dizkigutenak:

1. Jan Braun, *Slovarnyje schoždenija baskskogo i kartvel'skich jazykov*, VII naučnaja konferencija aspirantov Tbilisskogo gosudarstvennogo universiteta, Plan raboty i tezisy dokladov, Tbilisi, 1954, 40-42 eta hurr.
2. Brauni/J. Braun/ *Baskuri ena La lengua vasca/ Kartuli Sabčota Enciklopedia/Enciclopedia georgiana/ t. II*, Tbilisi 1977, 223-227.
3. Jan Braun, *Euskaro –Caucasica. Encuentros internacionales de vascólogos*, «Iker-1 Euskaltzaindia /Real Academia de ña lengua Vasca, Bilbao 1981, 213-21.

4. Zofia Schleyen, Jan Braun, *Poezja miłosna dawnej Hiszpanii*, Wydawnictwo Literackie, Kraków, 1981, stron 165, *Ballady i romance baskijskie*, Wiek XVII, 137-144.
5. I. Brauni /J.Braun, *Baskuri da kavkasiuri/ Euskaro-Caucasica/ Iberiul-kavkasiuri Enatmecnierebis çeliçdeuli VIII»* Tbilisi, 1981, 203-215.
6. I.Brauni/J.Braun/ *Baskologiis şesavali /Introducción a los estudios vascos/ Tbilisis Univerşiteşis Gamomceloba/Edición de la Universidad de Tbilisi 7* Tbilisi, 1984.
7. Jan Braun, *Africadas de las lenguas kartvélicas y sus correspondencias regularen en el vasco. Observaciones adicionales. Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Vitoria-Gasteiz 1985, 875-879.
8. Jan Braun, *The Grammatical Category of Article in Kartvelian and Basque. A comparative Study*. In «*Studia Caucasologica I*» ed. F.Thordarson, Oslo, 1988, 38-41.
9. Jan Braun, *Drevnejšie formy kauzativa v kartvel'skich jazykach i v baskskom*, *Materjaly pervogo meždunarodnogo kartvelologičeskogo simpoziuma*, Tbilisi, 1988, 85-89.
10. Jan Braun, *Nomina verbalia en las lenguas kartvélicas y en el vasco*, II Congreso Mundial Vasco, Congreso de la Lengua Vasca, Vitoria, 1988, 227-232.
11. Jan Braun, *Proto-Kartvelian declension and its development, Proceeding of the Fifth Caucasian Colloquium*, London 1990, «*Lingua Posnaniensis*» XXXIV, Poznań 1991-1992, 7-9.
12. Jan Braun, *Kogda baski poterjali kontakt ostal'nymi kartvel'skimi plemeni*, «*Rocznik Orientalistyczny XI, VIII/2*, Warszawa, 1993, 35-43.

Banakako artikulua

- *Baskologiis shesavali* [(‘Euskalaritzarako sarrera’) georgieraz] (1984)
- *Euscaro-caucasica* (1998)

- *Sumerian and Tibeto-Burman* (2001)
- *Sumerian and Tibeto-Burman. Additional Studies* (2004)